

AKTA: TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA ERATZEA

NOIZ: 2015eko uztailaren 23an, 18:00tan

NON: Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan

BERTARATUAK:

UDALA	ORDEZKARIA	BIZTANLEAK	BOTO %
Aduna	Josu Amilibia Alsua	471	%0,77
Alegia	Unai Iraola Agirrezabala	1744	%2,85
Alkiza	Jon Umerez Urrezola	373	%0,61
Altzo	Josu Astrain Azkona	400	%0,65
Amezketza	Iñaki Amundarain Tolosa	968	%1,58
Andoain	J. Agustin Alberro	14.655	%23,92
Anoeta	Aratz Luisa Urkola	1.893	%3,09
Asteasu	Joseba Txapartegi Nieve	1.523	%2,49
Baliarrain	Martzelino Dorronsoro Galarraga	130	%0,21
Berastegi	Amaia Azkue Eizagirre	1.056	%1,72
Berrobi	Joseba Iñigo Aiertza Mujika	568	%0,93
Elduain	Miren Amaia Askasibar Agirre	239	%0,39
Gaztelu	Edurne Garcia Azurmendi	171	%0,28
Hernialde	Miren Karmele Pellejero Galarraga	350	%0,57
Ibarra	Mikel Agirrezabala	4.256	%6,95
Ikaztegieta	Bakarne Otegi Jauregi	464	%0,76
Irura	Jose Ramon Epelde Irizar	1.671	%2,73
Larraul	Ander Leon	260	%0,42
Leaburu-Txarama	Itziar Zubelzu Urbietza	373	%0,61
Lizartza	Jose M ^a Sarasola Etxeberria	640	%1,04
Orendain	Gorka Egia Arregi	193	%0,32
Orexa	Beñat Leunda Atxega (*)	123	%0,20
Tolosa	Patxi Amantegi Zubiria	18.936	%30,91
Villabona	Ivan Aguirre Saiz	5.888	%9,61
Zizurkil	Aitor Sarasua Arruti	2.997	%4,89
25 UDALERRI-ORDEZKARI		60.342	98,51

(*): Beñat Leunda Atxega ordezkariaren ordezkapena Irene Pozueta Lizarraga zinegotziari eskuordetzen dionaren agiria aurkeztu du.

Ordezkari hauez gain, Andoain eta Hernialdeko alkateak etorri dira.

Idazkaria: Jose Luis Unanue Ugalde.

Ingurumen Teknikaria: Gemma Eceiza Mendiguren.

BERTARATU EZ DIRENAK:

UDALA	ORDEZKARIA	BIZTANLEAK	BOTO %
ABALTZISKETA	KEPA GOROSTIDI GARMENDIA	329	%0,54
ALBIZTUR	EZ DAGO ORDEZKARIRIK	327	%0,53
BELAUNTZA	SILVIA MONEO CID	260	%0,42
3 UDALERRI-ORDEZKARI		916	1,49

Mankomunitatearen idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Estatutoen 20.2 atalean xedatzen den Mankomunitateko zuzenbidezko biztanleen gehiengo absolutuaren ordezkari izango den botoen gehiengo absolutuak bertan daudenez, Batzarrak lehenengo deialdian baliozko eraketa du. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1. **Mankomunitateko diruzaintza izakinen egoeraren berri ematea.**
2. **Mankomunitateko Batzarraren osaketa:**
 - **Adin Mahaiaren eraketa.**
 - **Egiaztagirien konprobaketa.**
 - **Batzarraren eraketa.**
3. **Lehendakariaren hautaketa.**
4. **Lehendakariordearen hautaketa.**
5. **Batzorde Iraunkorra Kontuatarako Batzorde Berezi gisa izendatzea eta bere osaketa burutzea.**
6. **Mankomunitateko ordezkarien izendapena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorako.**
7. **Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz bidaltzeko proposamena.**

1. Mankomunitateko diruzaintza izakinen egoeraren berri ematea.

Mankomunitateko teknikariak hitza hartu du esplikatzeko zein egoeratan dagoen diruzaintza izakina, 2015eko lehenengo seihilabeteari dagokionez:

2015/01/01 hasierako saldoa: 1.258.611,54 €

2015/06/30 bukaerako saldoa: 909.335,71 €

Batzarkideei pasa zaien dokumentazioan egiaztatzen da kontabilizatutako arkeoa eta Kutzako saldoa bat datozela.

2. Mankomunitateko Batzarraren osaketa.

Mankomunitateko estatutuen 21. atalak dioenari jarraiturik, Udaletako ordezkariak, Mankomunitateko Idazkariak deia egin ondoren, lehen buruan, adin Mahaia eratu dute, bertaratuen arteko adin handienekoak eta adin txikienekoak osaturikoa; lehena, Irurako ordezkaria, Mankomunitateko lehendakari gisa eta, bigarrena, Ibarako ordezkaria, Idazkari gisa aritu direlarik. Mahaiak hautetsien egiaztagiria egiaztatu ditu.

Mankomunitateko ordezkarien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Mankomunitatearen batzarra eratutzat jo du.

3. eta 4. Lehendakariaren eta Lehendakariordearen hautaketa.

Mankomunitateko estatutuen 21.2 atalak dioenari jarraiturik, Mankomunitateko Lehendakariaren eta Lehendakariordearen hautespenari ekin zaio.

“Lehen botazioan emandako botoen gehiengo osoa lortuko duen hautagaia Lehendakari hautatua izango da. Gehiengo hori ezein hautagaik lortu ez izatera, beste botazio bat egingo litzateke ondoren eta emandako botoen gehiengo soilak lortuko lukeen hautagaia Lehendakari hautatua aldarrikatuko lukete. Lehendakariordea hautatzeko berdin jardungo dute”.

Alegiako ordezkariak hitza hartu du adierazteko bere alderdiak, EH Bilduk, hartu emanak izan dituela EAJ alderdiarekin, kargu hauek adosteko. Beraz, hautagai hauek proposatu dituzte: Lehendakaria, Adunako ordezkaria, eta Lehendakariordea, Tolosako ordezkaria.

Ondoren, bozketari ekin zaio eta bere emaitza honakoa izan da: batzarkide guztiak hautagai hauen alde egin dute, eta ez da egon kontrako botorik ezta abstentziorik ere.

Beraz, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Adunako udaleko ordezkaria den JOSU AMILIBIA ALSUA Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakaria izendatzea.

BIGARRENA.- Tolosako udaleko ordezkaria den PATXI AMANTEGI ZUBIRIA Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakaria izendatzea.

5. Batzorde Iraunkorra Kontuetarako Batzorde Berezi gisa izendatzea eta bere osaketa burutzea.

Batzorde Iraunkorraren osaketa, Mankomunitateko estatutuen 24 eta 25 atalek dioenari jarraiturik, Batzarrak aukeratuko du. Batzorde honen funtzioen artean, Kontuetarako Batzorde berezi gisa aritzea izango da ere.

- Batzarreko kideen artean hautaturiko zazpi baino gehiagoko eta hamaika baino gutxiagoko kide kopuruak osatuko du Batzorde Iraunkorra.

- Lehendakaria eta Lehendakaria, beti ere, haietarik izango dira eta Batzordean halakotzat jardungo dute.

-Batzorde Iraunkorrekoan izango dira, gutxienez, ondoko udal taldeetako ordezkari bana:

- a) 500 biztanle arteko herriak
- b) 500-2.000 biztanle arteko herriak.
- c) 2.000 biztanletik gorako herriak.

Batzorde Iraunkorra osatzeko adostasuna dagoenez alderdi politikoaren artean, Batzarrak, ahobatez, ondorengo Batzorde Iraunkorraren osaketa onartu du: **Aduna, Alegia, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Ibarra, Irura, Larraul, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.**

6. Mankomunitateko ordezkarien izendapena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtziorako.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtziorako estatutoen 12.3 artikulua xedatzen du kontsurtzioko kide den entitate bakoitza, kontsurtzioa osatzen duten entitateek izendatutako hiru pertsonak ordezkaturiko dutela; eta Tolosaldeko Mankomunitateak, hasieran behintzat, %5 boto kopurua bereganatu duela, ordezkari bakoitzak entitateari esleitutako boto erkatuaren herena izango duelarik.

Esleitutako boto portzentajea hirutan zatitzearen emaitza ez bada zenbaki osoa, kasuan kasuko zenbaki osoa eta lehen hamarrena hartuko dira haintzat.

Gainera, aipatutako estatutoetan xedatzen da Batzarreko izendatzen den kide bakoitzak ordezkari bat izango duela.

Alegiako ordezkariak hitza hartu du adierazteko bere alderdiak, EH Bilduk, ez duela puntu honetan adostasunik lortu EAJ alderdiarekin. Beraz, proposatu dute mankomunitateari dagozkion hiru ordezkariak EH Bildukoak izatea, oposizio eta kontrol lan egoki bat egin ahal izateko. Hala ere, aurrerago egoerak utziko balu, ez dute baztertzeko ordezkari hau aldatzea, independente edo EAJko ordezkari batengatik.

Tolosako ordezkaria ez dago ados proposaturiko izendapenekin. Bere ustez, ordezkaritza horrek ez du isladatzen mankomunitatearen osaketa. Beraz, proposatu du bere alderdiko ordezkariak beraien artean botoa ematea elkarri, herri bakoitzak bi boto emanaz. Proposamen hau oinarritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosaldeko Mankomunitateak, beste mankomunitate batzuekin batera, 2007ko martxoaren 13an sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenean. Bertan, 4. estipulazioan, hitzez-hitz honakoa adierazten da:

“CUARTA: PARTICIPACIÓN EN LA ASAMBLEA DEL CONSORCIO

Los entes consorciados consideran de especial importancia garantizar la pluralidad de la composición de la Asamblea General y la uniformidad de todos ellos en el sistema de elección de asambleístas.

Por ello, acuerdan que la elección de los asambleístas que representen a cada Mancomunidad la hagan las Juntas o Asambleas respectivas con un mismo procedimiento. A través de una primera votación única en la que cada asambleísta podrá votar a dos de los candidatos presentados quedará conformada una propuesta de acuerdo que promoverá el nombramiento de los tres candidatos más votados. La propuesta de acuerdo deberá ser aprobada conforme al régimen de adopción de acuerdos propio de cada Mancomunidad.”

Idazkariak, hitzarmen hori aztertu ondoren, adierazi du zirrorro bat dela soilik eta 4. estipulazioa ez dagoela indarrean. Gipuzkoako Hondakinen Kontsordzioko estatutoetan, 2007ko maiatzaren 17ko G.A.O.n argitaratuak, aipamen hau egiten dio puntu horri, hitzez-hitz horrela diona:

“4. estipulazioa mankomunitateek hartutako erabakiari egindako erantzuna da, erabaki horren arabera, batzarkideak hautatzeko irizpide bat adostu baitzen, mankomunitateetako estatutuen edukiarekin bat datorrena eta Kontsordzioa osatzen duten organoek ahalik eta gehien parte hartzeko eta askotarikoak izateko nahiarekin koherentea dena. Hori dela-eta, batzarkideen proposamenak antolatzeke sistema bat zehaztu da, nolana ere mankomunitate bakoitzak berezko duen erabakiak hartzeko erregimenaren baitan onartu behar dena, eta hori ezin da Kontsordzioaren Estatutuen aurkakotzat hartu.”

Hala eta guztiz ere, Tolosako ordezkariak insistitu du bere proposamena tajuzkoa dela eta EAJ alderdiak hiru boto dituela. Gaineratzen du hau guztia aktan jasota geratzea nahi duela.

Ondoren, Idazkaria batzarkideei zuzendu zaie esanez bozketari ekingo zaiola, aurkeztutako bi proposamenetik boto gehien lortzen dituenak izango delarik garaile. Beraz, lehenengoz EH Bildu alderdiaren proposamena bozkatu da, honako emaitza ateratzen delarik:

- Proposamenaren alde: 22 boto (Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa eta Zizurkil).
- Proposamenaren kontra: 3 boto (Irura, Tolosa eta Villabona).
- Abstentzioa: ez dago.

Jarraian, EAJko alderdiaren proposamena bozkatu da, honako emaitza atera delarik:

- Proposamenaren alde: 3 boto (Irura, Tolosa eta Villabona).
- Proposamenaren kontra: 19 boto (Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa eta Zizurkil).
- Abstentzioa: 3 boto (Alkiza, Baliarrain eta Larraul).

Beraz, bozketaren emaitzak ikusirik, EH Bildu alderdiaren proposamena izan da garaile, lortu duelako gehiengo bikoitza, eta, ondorioz, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan Tolosaldeko Mankomunitatearen ordezkartzan honakoak izendatzea, denak EH Bildukoak direlarik:

Batzarkideak		Boto kopurua
Titularra	Ordezkoa	
Josu Amilibia Alsua (Mankomunitateko Lehendakaria)	Mikel Agirrezabala	1,8
Amaia Azkue Eizagirre	Aitor Sarasua Arruti	1,6
Unai Iraola Agirrezabala	Joseba Iñigo Aiertza Mujika	1,6

BIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari jakinaraztea.

18:30tan Belauntzako ordezkaria bertaratzen da.

7. Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz bidaltzeko proposamena.

Teknikariak hitza hartu du adierazteko, Batzar berria eratzeko deialdiarekin batera, bidali dela dokumentu bat deialdiak eta jakinarazpenak posta elektronikoz jaso ahal izateko baimena emateko. Beraz, batzarkide bakoitzak bere udaleko helbide elektroniko eta pertsonalarekin bete dezake eta, ondorioz, Mankomunitateko deialdiak eta jakinarazpenak adierazitako helbideetan jasoko ditu.



Amaitzeko, Lehendakari berriak hitza hartu du honakoa adierazteko: azken legealdian adostasun maila batera iritsi direla mankomunitatea osatzen duten 28 herriek, eta hori izan behar dela mankomunitatearen ildoak datozen lau urteetako. Azpimarratu nahi izan du ere udalerrri bakoitzak erabaki duela zein bilketa sistema ezarri bere herrian, eta, hortik abiatuta, ez litzatekeela eragozpenik egon behar aurrera egiteko. Baita ere kontuan hartu nahi izan ditu mankomunitatearen datu ekonomikoak, gaikako bilketarekin lortutako emaitza honak, herri taldeak...Azkenik, goraiatu du azken legealdian elkarrekin egindako lana, beti ere herri bakoitzaren singularitasuna errespetatuz.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko seiak eta berrogeitahamabost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA